

Goizeko zazpiak jo zuten. Presaka zihoan Kayla egun hartan, oraindik begi-zuloak nabarmen. Kotxe gutxi batzuk zeuden errepidean eta kale-argiak itzaltzen hasiak ziren. Sabela agerian uzten zion topa zeraman soinean, ipurdiari itsatsiriko galtzamatz eta plataformadun zapatilekin batera.

Mirakruzeko pasealekua gurutzatu zuen, albait azkarren. Grosera iritsi eta Zabaleta kalerantz egin zuen. Hantxe zegoen 45. zenbakia, sarrerako erroteru handiak zioen: *Zurriola Beach Hostel*.

Neska bat ikusi zuen harrera-mahaian eserita, ostatuaren izena idatzirik zuten alkandora eta gona beltza jantzita. Ordenagailuari eta mugikorrari, bati zein besteari erreparatzen zien.

–Kayla? –esan zion berehala—. Zer moduz ama? Iritsi al da Brasilera?

Baietz erantzun zion. Aurreko gauean hitz egin zuela harekin.

–Ostatua erakutsiko dizut lehendabizi, egin beharrekoak azalduko dizkizut horrela. Gero sinatuko dugu kontratua.

Harrera-mahaitik jangelara eraman zuen.

–Barkatu, ez dizut neure burua aurkeztu ere egin. Libe naiz.

Bi musu eman zizkion. Kaylak ezagutzen zuen. Amaren bila joan zen aldietako batean ikusi zuen.

–Bost solairu dira guztira. Beheko aldean sukaldea eta jantokia daude.

Bizpahiru lagun ikusi zituen gosaltzen.

–Goizeko zazpietan hasten dira gosariak. Zure ama seiak aldera etortzen zen.

Sukaldera sartu ziren.

–Tori giltza, ate honetatik egiten ditugu sarrera-irteerak.

Sukaldetik atzeko kalera zuzenean zihoan ate bat ikus zitekeen.

–Hementxe patioa eta taberna. Gaueko 00.00ak arte dugu baimena eta asteburuetan 2:00ak arte. Itxita egoten da igande arratsaldetan.

Igogailurantz abiatu ziren.

–Goiko lau solairuetan gelak daude. Egunean zehar egin dezakezu garbiketa. Ondo begiratu argi gorria piztuta dagoen. Hala bada, esan nahi du bezeroak barruan daudela.

Azken solairutik eskailera batzuetan gora egin zuten.

–Eta hementxe gure txoko kuttuna.

Terraza handi bat zen, teilatuan. Hiriaren ikuspegi ederri erreparatu zion.

–Ez da itsasoa ikusten, baina batzuetan entzun egiten da ordu txikitan.

Ate bat zegoela ohartu zen Kayla.

–Hementxe bizi naiz ni –esan zion Libek–. Eraikinaren ganbara zen garai batean. Goazen kontratua sinatzera, nahi baduzu.

Eskaileretan behera egin zuten. Kontratua sinatu eta hurrengo egunera arte agurtu zuten elkar.

–Ni 08:00etarako jaisten naiz, baina edozer behar izanez gero, igo etxera lasai. Halako kamiseta bat jantzi beharko duzu. Hementxe dituzu, hainbat neurritakoak daude.

Bularralde handia zuen Kaylak. Gogoko zituen bere bularrak, baina maiz arropa ondo geratzeko oztopo ziren.

Bidebietarako bidea hartu zuen neskak. Buruan zuen planak kale egin zion. Ez zuen espero ostatuan inor bizi-tzea. Beste zerbait pentsatu beharko zuen.